



«ONLINEKO EHORZKETA ASEGURUA» KANPAINAREN OINARRIAK

Agiri honek «ONLINEKO EHORZKETA ASEGURUA» kanpainarako baldintzak bildu eta zehazten ditu. Online kontratatutako ehorzketa-poliza berriak dira kanpainaren helburua eta, konpainiaren oinarrizko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete beharko dituzte.

1. Kanpainaren datak

Sustapena 2021eko urtarrilaren 1ean hasi eta 2021eko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenez baliatu ahal izateko, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar da poliza. Efektu-datak, berriz, 2022ko martxoaren 31ra arteko muga izango du.

2. Eskaintza

Oinarrizko Ehorzketa Asegurua kontratatzeagatik, bezeroari 20 € itzuliko zaizkio kontratatutako poliza bakoitzeko. Kanpaina indarrean dagoen bitartean kontratatu behar dira polizak, eta 3. eta 4. ataletako kontratazio-arauak bete behar dituzte.

3. Baldintza orokorrak

- 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar da poliza. Efektu-datak, berriz, 2022ko martxoaren 31ra arteko muga izango du.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauei jarraikiz hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Gehienez 150 itzulketa (bezeroei zuzendutako ordainketa) egingo dira.
- Sustapenez baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Kanpainatik kanpo geratuko da Oinarrizko Ehorzketa Prima Bakarrean modalitatea.
- Saria jasotzeko eskubidea ematen duen polizaren efektu-dataren ondorengo 90 egunetan egingo dira ordainketak.
- Polizak urtebetekoa izan beharko du.
- Kontratutako ehorzketa-polizaren helbideratze-kontuan dirua itzuliz gauzatuko da oparia.
- Kontratutako poliza bakoitzeko 20 € itzuliko dira, polizako aseguratu edo onuradunen kopurua edozein dela ere.
- Online kontratatzen diren aseguruetan soilik itzuliko dira 20 €-ak; hortaz, sustapenetik kanpo geratuko dira bulegoan kontratatzen direnak.

4. Produktu bakoitzaren baldintzak

EHORZKETAK:

- Arriskuak adarraren kontratazio-arauen mende daude.
- Oinarrizko Ehorzketaren modalitatea.
 - 50 €-ko edo gehiagoko primetarako.

Aseguratzailea: EXPERTIA Seguros de Decesos S.A.

Sustatzailea: Aseguruen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetakoa operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legediaren arabera. Arriskuaren aseguratzailerak: **Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida SA, La Previsión Mallorquina de Seguros SA, Sanitas SA de Seguros, EXPERTIA Seguros de Decesos SA, Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER eta Europ Assistance España SA (Espainiako sukurtsala).**

Aplikazio-eremua: LABORAL Kutxaren webgunearen edo Online Bankaren bidez kontratatzen diren aseguruetan aplikatuko da kanpaina.